



JOSU SANTESTEBAN

Jon Alonso

ITZULTZAILEA ♦

# Eskandalagarria

HOGETA HAMAR bat urte joan dira, Sadarrera hamabostean behin jaisten ginen, Alzateren *indiarrek* ikustera. Ezizena norbaiti gogoratu, bidea egin zuen: trumilka eta lasterka agertzen zirelako, alde guztietatik.

Osasuna hartaz harro geunden. Etxeberriak ikusarazten zigun hirugarren mailatik lehen mailarako jauzia ez zela horrenbestekoa, saiatuz gero; Martinek baloia ezkerretik gidatzen zuen bakoitzean zerbait gertatuko zela bagenekien, Irigibel koloreen alde aurpegia apurtzeko prest zegoelakoa, metafora erraz bat baino gehiago zen, Artetxek, Atlético de Madrideko harakin famatu hark, sudurra apurtu zionean bezala, alde aurretik gaztigu eginda, gainera. Clemente Iriarte, beste dimentsio bateko jokalaria, guk ordura arte bertatik bertara sekula ikusi ez bezalakoa, Von Karajan baino zuzendari hobe.

Osasuna hura mitikoa zen.

Orduan ere futbola negoziua zen, herriaren opioa zen... Orduko futbolak bazeukan zerbait, baina; besterik ez bada, batek astegun buruzuri batez kaletik ibili eta han ikusten zituen jokalaria, xalo-xalo, mundu guztia zebilen tokietan, beste edozein herritar bezala, ospetsuak izan arren; dirua irabazten zuten, baina ez hainbeste ere; taldearekiko atxikimendua gertutasun horretatik sortzen zen. Zorra? Zer zen hori?

*Osasuna hartaz harro geunden. Etxeberriak ikusarazten zigun hirugarren mailatik lehen mailarako jauzia ez zela horrenbestekoa, saiatuz gero*

Gero hasi ziren mertzenarioak agertzen –jokalaria, bitartekariak, entrenatzaileak...– onak, ez hain onak eta txarrak. Futbolean dena hasi zen kakazten, indarkeria gero eta handiago bihurtzen, arrazismoa gero eta nabarmenago izaten, betiko alderdi itsusiak areagotzen, balio onak apaltzen. Osasunaren ere bai. Ezin zen ezer esan, ordea, automatikoki nafar gaiztoa izatera pasatu nahi ezean. Zorra gero eta

handiagoa zen, baina aski zen telefono dei bat CANek mugarik gabea zirudien kreditua emateko. Eta horrela, 60 milioi euroko zorra pilatu arte. Eta inork horren ardurarik ez? Lotsagarria.

Nafarroako Parlamentuak Osasunaren zorra kitatzeko onetsi duen legea eskandalagarria da. Espanyol taldeak 43 milioi zor dizkio Espainiako Ogasunari, Atlético de Madridek zenbatekoa duen, ez dut uste

artikulu honetan zifra sartzen zaidanik. Zer, lehen bankuak eta orain futbol taldeak erreskatatu beharko ditugu?

Eta oraindik penagarriagoak izan ziren entzun ziren argudio batzuk, legea onartzearen aldekoek emanda, aurka zeudenen kontra: irrazionalak, iruzurtiak eta gorroto eragingarriak.

Beharbada ez geunden hain oker Osasunaren mitoarekin, Nafarroarenarekin baizik. ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

## Stay

INTERSTELLAR filmak naturaren, janariaren, gorpuzten eta burumuinaren kutsatzaile amorratuaren fantasmak biltzen ditu: guztia kakaztua izan daitekeenean plan A handiosaren arabera, galaxia garbiago eta abegikorrago batera joaten ahalko dira abilenak –dirudunenak alabaina– den-dena zerotik berriz hastera. Planeta urdina higatzeko eta iparraldeko edozein zabortegitara botatzeko egina da amerikarren iritziz. Bost dimentsiotako eremu-denboraren plieguetan ezkutatzen dira, mendebaldeko ustiatzaile barkaezinen eredu falangatsua salbatzea desio duten haiek –*they*...– baina ametsak

lukainketakoak baino ez dira, bereziki kasu honetan.

Zinetik ateratzean galderak ditut: ba dea zizare zuloen mugetako izartegi ugari horietan gizon-emazte andeatzaile eta gorrotatzaileon humanitatea aterpetzea onartuko luken lur borobil bakarrik? Etor-kizunaz axolatzen ez diren jende belaunaldiek –*future childs*...– merezi dutea berdin zitzikatuko dituzten lekuetara oneziaz eramana izatea? Zeren izenean aurpegirik gabeko nortasun malguak gutaz, euskaldunotaz barne, urrikalduko litezke?

Lurra da gure (zar)ama... ■

